

Elizen arteko Biblia

Bibli Elkarte Batuak - Elizen arteko Biblia Elkartea eta Euskal Herriko Elizbarrutiak, 1994.

ISBN: 84-88774-05-2

Liburu hau aztertzerakoan, liburua eta ingurua inoiz baino gehiago kontuan hartu behar ditugula uste dut. Bibliaren itzulpena delako, 'Elizen arteko Bibliaren itzulpena' delako, eta Euskalerriko erakunde desberdinek parte hartu dutelako. Aurkezpenaren kronika eginda dago, *Aldizkari nagusia. Donostiako Gotzaindegia*, 829-833 orrialdeetan.

Lan hau lan bikaina da, zarraparraren bat edo beste badago ere, eta elkar lanean egin-dakoa da. Elkar lanean jarrita beste gauza asko eta ederrak ere egin genitzake. Zergatik ez ditugu egiten?

Nik aurkezpen hau egiterakoan lanean ibili direnen hitzak aipatuko ditut batez ere garbi azaltzen dutelako izan dituzten asmo eta helburuak. IX orrialdean honela esaten du: "Argitalpen honek hau du asmo: pertsona guztiei egokiera ematea, Biblia eskura izan dezaten, eta, hain zuzen, nork bere hizkuntzan eta bere eskuarteko ordain sanan eskura izan dezan". (*Bibli Elkarte Batuen Sorrerako Asmo Nagusia*). Aldi berean, itzulpen honi esker kristau euskaldunek "Liburu Santura hurbiltzeko erraztasun zabala izatea" nahi genuke, eta Jesukristo sakonago ezagutu eta Hari leialkiago jarraitzea; izan ere, "Liburu Santua ez ezagutzeak Jesukristo ez ezagutzea esan nahi du" (Vatikanoko II. Kontzilioa, *Dei Verbum*, 22. eta 25. zenb.).

Azkenik, katoliko eta protestanteen arteko elkarlan estuan egina izan den "Elizen Arteko Biblia" honek, gure gizartean hain beharrezkoa dugun elkarrizketa indartzeko eragina izatea nahi genuke; eredu eta eragin gerta dadila guztiontzat, egiazko bake sendora eramango gaituzten aurrerapausuak emateko, eta guztion arteko solidaritza anaikorra lortzeko.' (IX-X orri.)

Helburuak argi adierazten dituzte XI orrialdean. Eta uste dut ondo betetzen dituztela lanean zehar. Nik neuk eranskin txiki batzuk gehiago jarriko nizkioko liburu honi. Ez lukete gehiegi luzatuko, bi mila orrialde baino gehiago dituen lan hau. Eta uste dut aberastuko luke-tela.

Aurkezpenean XI orrialdean euskarazko Biblia itzulpen batzuk aipatzen dira. Nik euskarara egin diren guztiak aipatuko nituzke.

XV. orrialdean hebraierazko Bibliaren liburuak aipatzen dira. Irakurlearentzat lagungarri litzateke ohar txoreen bat gai hau argitzeko. Jerusalemgo Bibliak, esaterako, horrela egiten du. Idea hauek edo antzekoak sartzea komeniko litzateke zatitxo horretan. Hebraierazko Bibliaren kanona (liburu sakratuen kopurua eta zerrenda) kristau aroan finkatu zuten judutarrek eta gerogoko onartu zuten. Judutarren Itzun Zaharreko liburuak, protestanteek ere onartu zituzten. Hemen, bai judutarrek eta bai protestanteek onartzen dituzten Itun Zaharreko liburuak daude. Eta Katolikoen kanonak onartzen dituenak ere. Baina judutarren ordena jarraituz.

Itzultzaileak eta laguntzaileak aipatzen dira. Itzultzaileen artean ez dago inor Iparraldeko-rik, gero laguntzaileen artean agertzen badira ere. Irakurlearentzat argibide teknikoaren atal dator hurrengo. 'Euskalkien hiztegia' ere jarri dute. Baina ez dago inolako adierazpenik zein euskalkitakoak diren jakiteko. Hitz batzuetan definizio zehatzagoak beharko liriateke: 'ereinotz: zuhaitz mota' edo 'azkonar: pizti mota' motz samar gelditzen dira. Taula kronologikoa ere badago. Interesgarria da Bibliako zati historikoak, gizadiaren historian kokatzeko.

Euskarari begiratzuz, euskara txukuna dago testuetan.

Dena den osorik ez dut irakurri, baina irakurritako zatietan argi ikus daiteke hori. Batzuetan oharretan jartzen da hitzez hitz egindako itzulpena. Baina agian oharretakoa testuan zuzenean jarrita ere ez luke asko galduko testuak berak, argitasun txikiren bat azpian ipinita. Adi-

bidez 1.070. orrialdean dagoen ohar luzea testuan jarri zitekeen, agertzen diren metaforak azalduz. Edo 1.069. orrialdean 11,1 oharrekoak.

Iruzkin txikitxo batzuk ere egin nahi nituzke. ‘Profanatu’ erabiltzen dute toki desberdinetan. Esaterako 128. orrialdean, 1 Mak, 3’51 txatalean. Ex. 31’14 itzultzeko Duvoisinek ‘narriotu’ erabili zuen. Bide hori jarraitzea zailegia ote litzake? Bestalde itzulpenak, euskara aberastutzeko bide bat dira. ‘Prostituzio’ hitza ere erabiltzen dute. Lizunkeria gaizki egongo litzateke? ‘Tronu’ hitza ere agertzen da. Euskal hiztegietan, errege aulki baino errotuagoa dagoela esango nuke nik.

‘Izadi: natura’ jartzen dute. Herrietan erabiltzen den euskaran, natura abereen anatomia atal bat izendatzeko erabiltzen da eta horrela ulertzen dute. ‘Ludia’ neologismotzat hartzen bada, munduaren izaera, zeru-lurren izaera edo horrelako zerbait jar daiteke. ‘Urratu: puskatu’ jartzen du. Oihal bat edo ohol zati bat puskatu bai puskatzen dira, baina harriak ez dira urratzen. ‘Neba’ hitza ere erabiltzen dute. Hain hitz nabaria izanik, batuan idazten diren lan askotan ez da erabiltzen, anaia denetan jarriz. ‘Tente’ hitzean ‘zutik’ ere jar daiteke. 697. orrialdean cm-koa idazten dute. Inprimategi huts bat da seguraski. Eta XXlean *Hebraika* dago. *Hebraica* da orijinaleko izenburua. Huskeri hauek zuzentzeko aukera bigarren argitalpen batean izango dutela uste dut.

Biblia Europako literatura nagusi gehienetan iturri izan da eta sorburu. Gizadiaren historiaren ia era guztietako esperientziak biltzen ditu. Guretzat ere aberastasun bat da. Eta oraingo honetan, hango eta hemengo agintariak, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Akitaniako Lurralde Kontseiluak laguntza eman dute. Horregatik irakurlearen poltsikoari ere ez dio eskatzen ahalegin berezirik. Pezeta bat baino merkeago ateratzen da orriko. Liburu honen hasieran esaten dena berriz gogoratu nahi dut: denok elkartuta lan bikainak egin ditzakegu. Sokatiran ibilita ezer ez. Bada garaia hori ikasteko. Ikasiko ahal dugu behingoa!

José M.^a Etxebarria

AZURMENDI, JOXE,
Espainolak eta euskaldunak
Elkar, Donostia, 1992. 581 páginas

El autor se decidió a trabajar sistemáticamente hasta dar forma de libro a una serie de materiales dispersos que había ido reuniendo durante varios años, el día en que le oyó decir nada menos que al Presidente de la República en el exilio, Sr. Claudio Sánchez Albornoz:

“Los vascos son los últimos que se han civilizado en España: tienen mil años menos de civilización que cualquier otro pueblo... son gentes rudas, sencillas, que además se creen hijos de Dios y herederos de su gloria. Y no son más que unos españoles sin romanizar..

Pero yo le decía al presidente del Gobierno Vasco cuando yo era presidente de la República (en exilio): hablen el vasco, si es que pueden, porque la mayoría no lo saben, pero a pagar impuestos como todos los españoles”.

El autor intenta mostrar que el retrato que con las citadas palabras se hace de los vascos no es sino el resultado de un largo proceso que se remonta a tiempos pasados y cuya historia se reconstruye en este libro de forma detallada.

La tesis básica es que todas las culturas elaboran mitos, leyendas, historias,..., por medio de las cuales expresan lo que piensan tanto de sí mismos como de los demás, normal-